



“EUSKARAZ S.A.”

LAN-MUNDUKO ERAGILEAK SENTIBERATZEKO EKIMENA

Oarsoaldeko lau udalek 13 urte daramatzate, era batera edo bestera, lan-munduan euskararen presentzia handitzeko egitasmoak gauzatzen. Oarsoaldeko Euskara Batzordeak, ordea, ederki daki egun lan-mundua euskalduntzeko darabiltzan neurri eta kopuruak oso motz direla oraindik egoerari buelta ematen hasteko. Horregatik, gaiari bultzada berria ematea beharrezko deritzo, alor sozioekonomikoan euskara normalizatzeak ekarriko baitu neurri handi batean gainerako alorretan ere euskara normalizatzea.

Horiek horrela, agerraldi batean ezagutzera eman **dute lan-munduko eragileak sentiberatzeko ekimen berria; EUSKARAZ, S.A.** Prentsaurreko horretan Izaskun Gomezek (Pasaiaiko alkateak), Garazi Lopez de Etxezarretak (Erretereriako zinegotziak) eta Nagore Garcia de Vicuña (Strogoff komunikazio enpresaren ordezkariak) parte-hartu dute baina eragile mordoxka bat bildu ziren agerraldian:



EUSKARAZ, S.A.

Guztiok ditugu maila pertsonalean egin nahi ditugun eginkizun batzuk, lanekoez gain. Euskara izaten da, askotan, horietako bat. **Euskara ikastea, euskaraz hitz egitea, euskara partekatzea, euskaraz konposatzea, euskaraz idaztea eta euskaraz bizi osoko konpromiso eder bat da jende askorentzat**, eta tinko eusten diote horri, oztopoak oztopo, beti erraza izan ez arren.

Hori da, agian, haien enpresarik preziatuena. Beren hizkuntzarekin idatzi gabeko kontratu bat duten pertsonen kasuan, ez dago zalantzarik: **haien enpresa Euskara S.A. da.**

+ Eus
+ ka
+ raz,
S.A.

Egunero proiektu baliotsu bat, gure hizkuntza, alegia, aurrera ateratzeko gogor lan egiten dutenei. Sozietate honen parte diren guztiei, merkatarizatik haratago doalako eta bere zuzendaritza milaka herritar anonimok osatzen dutelako.

Horixe da aste honetan hasi den kanpainaren muina eta, lehen fase batean, autobus geltokietan, autobusetako pantailetan eta irratian zabalduko dena, eta datorren urtean beste hainbat ekimen eta euskarri erabiliz jarraipena izango duena.

Eman diezaiozun lana euskarari. Gure enpresa da.



Ahozkoa lantzeko saioak

Urritik aurrera hainbat mintza saio eta aholkoa lantzeko saioak antolatu dira enpreetan. Oraingoan Sanmarkosene eta Papresa enpresetako adibideak ekarri nahi izan ditugu hona.



Lankideekin eta egoiliarrekin euskara hitz egiteko orduan erraztasun handiagoa izateko jarri dira martxan. Une honetan 16 pertsona ari dira parte hartzen.

Hona hemen partaide batzuk:



Lankideekin, etxean eta lagun artean euskaraz hitz egiteko ohitura hartu eta erraztasun handiagoa izateko antolatu dira. Une honetan 25 pertsona ari dira parte hartzen.

Hona hemen partaide batzuk:

